


## **6-.BEZEROAK:**

Enpresak kanpo harreman-mota askotan jarduten du baina gehiengoak enpresak izaten dira. Badaude enpresak non harreman estu bat mantentzen dugun, beraz, ahal den bitartean geure bezero bat izango dela ziurtatu dezakegu. Gainera geure produktua oso eraginkorra dela esaten dute bazkide gehienek, beraz, beraien lanean produktu hau integratzeko ez dago arazorik. Gainera bezero ona bada, hau da, guk fabrikatutako produktu asko erosten badizkigu, Gabonetan opari saski bat bidaltzen diegu eskerrak emateko eta haiengan geure fideltasuna adierazteko.



## **PUBLIZITATE TEKNIKAK**

Geure bezero kopurua altuagoa izan dadin, publizitate-teknikak erabiltzen ditugu, adibidez mugikor denda ia denetan produktu bat ezartzen dugu erosleak ikus dezaten oso tresna moderno, aurreratu, erabilgarri eta efizientea dela. Baita ere aldizkari zein egunkarietan noizbehinka agertzen dira geure produktuaren albiste zein argazkiak. Metodo honek asko lagundu digu enpresa ezberdinekin harremanetan jartzen.